



## MEZULARITZA ZERBITZUA – Maila aurreratua

Prozedura irekiaren bidez kontratatzeko eta lehiaketaren bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

### 1. Kontratuaren xedea eta zehaztapenak

#### 1.1. Kontratuaren xedea

Atal honetan garrantzitsua da aipatzea ingurumen-alderdiak kontuan hartuko direla:

##### 1. Koadroa

Kontratu honen xedea da kanpo-mezularitza eta/edo barne-posta zerbitzua [zehaztu] kontratatzea, administrazioaren beharrei erantzutean ingurumen-inpaktu txikiagoa eragiteko.

#### 1.2. Esleipen-irizpideetan bete beharreko zehaztapen teknikoak eta zehaztapen baloragarriak

##### 1.2.1. Ibilgailuetarako irizpideak

##### 2. Koadroa

###### Hiri arteko kanpo-mezularitza

- Administrazioaren beharrak asetzeko, ezin dira berariazko ibilgailuak eta gidariak esleitu udalerritik kanpoko eta EAEko mezularitza-zerbitzuan. Hortaz, enpresak zerbitzu hori egiteko dituen ibilgailuen ingurumen-ezaugarriak balioetsiko dira (furgoneta txikiak eta handiak), CO<sub>2</sub> emisioei eta bestelako errekuntza-gasen emisioei dagokienez (EURO estandarraren arabera); egiaztapen-zerrendaren I. Eranskinean jasotzen dira ezaugarri horiek.

###### Hiri arteko kanpo-mezularitza

- Kanpoko mezularitza-zerbitzua kontratatutako enpresa dagoen udalerraren barruan egiteko, lote hauek zehaztu dira:
  - a) *Bizikleta bidezko mezularitza [zerbitzu hori duten herrietan]*  
..... eta ..... arteko eremuan [bizikleta bidezko zerbitzuaren eremua zehaztu], zerbitzua bizikletaz egingo da. Bidalketa 5 kg, 25 l edo 40X30X25 cm baino handiagoa bada, zerbitzua furgonetaz egingo da.

Balioetsi egingo da eskaintzaileak bizikleta bidezko zerbitzua duen eremua eta zerbitzurako zama-mugak zabaltzea (pisan, bolumenean eta berariazko neurrietan).

*b) Motor bidezko mezularitza-zerbitzua*

[Bizikleta-zerbitzua zehaztuz gero] Hiriguneko gainerako eremuetan motorrez egingo da zerbitzua.

[Mezulariak esleitzeko adina bidalketa badu administrazioak] Eskaintzaileak mezularien eta motorren zerrenda aurkeztu behar du (zerbitzurako aurreikusitakoak), baita horien ingurumen ezaugarriak ere (egiaztapen zerrendaren I. Eranskinean jasoko dira, horiek balioztatzeko).

[Mezulariak esleitzeko adinako eskaririk ez badu administrazioak] Administrazioaren beharretarako berariazko ibilgailu eta gidariak esleitu ezin direnez, motorren ingurumen ezaugarriak balioetsiko dira, CO<sub>2</sub>-aren edo beste errekuntza-gasen emisioei eta zaratari dagokienez (egiaztapen-zerrendaren I. Eranskinean jasoko dira).

*c) Furgoneta bidezko mezularitza*

Bidalketen neurriak (bolumena edo pisua) edo distantzia direla-eta ezin bada zerbitzua bizikletaz edo motorrez egin, furgoneta erabiliko da.

[Lotea hiri arteko mezularitza-zerbitzukoa bada] Zerbitzurako ibilgailuen ingurumen ezaugarriak balioetsiko dira, hiri arteko mezularitza-zerbitzuari dagokion informazioaren arabera.

[Lotea hiri arteko mezularitza-zerbitzukoa ez bada] Enpresak zerbitzu hori egiteko dituen ibilgailuen ingurumen ezaugarriak (furgoneta txikiak eta handiak) balioetsiko dira, CO<sub>2</sub>-emisioei eta bestelako errekuntza-gasen emisioei dagokienez (EURO estandarraren arabera); egiaztapen-zerrendaren I. Eranskinean jasotzen dira ezaugarri horiek.

### 1.2.2. Bilgarrietarako baldintzak

#### 3. Koadroa

- Administrazioak bildu egiten dituzenez bidali beharreko dokumentu eta objektuak, mezularitza enpresak konpromisoa hartu behar du berriro ez biltzeko, hala eginez gero areagotu egiten baitira hondakinak azken helmugan.
- Barne-postan edo berehalakoak ez diren bidalketak egitean nahiz jasotzean [zehaztu kontratuaren xedea], eskaintzaileek kaxa berrerabilgarrietan bildu behar dituzte jaso eta banatu beharreko pakete eta gutun-azalak.

Zerbitzuari buruzko txostenean zehaztu egin behar da horretarako erabiltzen den kaxa-mota. Kaxak material birziklatuz eginak izatea balioetsiko da.

### 1.2.3. Zerbitzuaren baldintzak

#### 4. Koadroa

- Bidalketak onartzeko, balioetsi egingo da bidalketak onartu eta jasotzean paper birziklatua erabiltzea enpresak, bai eta sistema elektronikoak ere. Zerbitzuari buruzko txostenean, kasu bakoitzean erabilitako sistema eta materialak zehaztu beharko dituzte eskaintzaileek (berehalako bidalketak, urgenteak edo erdi-urgenteak).

Ekogidatzeari buruzko prestakuntzaren bidez, erregaiaren % 15-20 aurreztu daiteke. Mezularitza-zerbitzuan batik bat furgonetak eta bestelako ibilgailuak erabiltzen direnez, garrantzitsua da langileek prestakuntza izatea gidatze eraginkorrean.

Bidalketen bolumena dela-eta administrazioak ez badio zerbitzuari mezularirik esleitzen, mezularitza-enpresak langile guztientzat ekogidatzeari buruzko prestakuntza-politika izatea (baldintza-orriko hurrengo klausula barne) balioetsi beharko du administrazio publikoak.

Zerbitzu horri hainbat pertsona esleitzea nahiago badu administrazioak, gauzatze irizpidetzat har lezake pertsona horiek gidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza jasotzea (gauzatze-irizpideei buruzko lehen klausula barne).

#### 5. Koadroa

[Zerbitzuari langileak esleitzeko eskatu ezean] Balioetsi egingo da enpresak ekogidatze eraginkorrari buruzko prestakuntza-politika izatea bere langileentzat (berek nahiz autonomoak).

## 2. Gauzatze-irizpideak

#### 6. Koadroa

##### Ekogidatzeari buruzko prestakuntza

- [Zerbitzuari langileak esleitzeko eskatzen bada] Egoki gidatuz gero, erregaiaren % 15-20 aurreztu daiteke. Horregatik, mezularitza-kontratuari lotutako furgoneta-gidari guztiei (furgoneta handietako zein txikietako gidariei) gidatze eraginkorrari buruzko ikastaroa eman behar die baimendutako organoren batek kontratuaren [zehaztu kontratuaren iraupenaren arabera] lehen hilabeteetan (lehendik egina ez badute).
- Kontratuaren [zehaztu kontratuaren iraupenaren arabera] lehen hilabeteetan egindako ikastaroen ziurtagiriak erakutsi behar ditu enpresa esleipendunak.

##### Segimendu-txostenak

- Mezularitza-zerbitzuaren inpaktuak ezagutzeko, informazio horren bidez langile

publiko guztiak kontzientziatzeko edo administrazioak emisioei buruzko kalkuluak egiteko, egindako ekintza eta adierazle hauei buruzko txostenak aurkeztu behar ditu aldiaren behin enpresa esleipendunak:

- Garraio bidez (furgonetak, motorrak eta/edo bizikletak) zenbat joan-etorri eta kilometro egin diren eta CO<sub>2</sub>-emisioa zenbatekoa izan den urtean. Motorrez egindako joan-etorriei dagokienez (motorrak eta furgoneta txikiak edo handiak), enpresa esleipendunaren ibilgailuen kontsumoa eta CO<sub>2</sub>-emisioak (eskaintzan kalkulaturakoak) ezarriko dira.
- Garraiobideen erabilera-portzentajea, oro har eta helmugaren arabera (hirikoa eta EAEkoa).
- Administrazioak egindako bidalketa guztien zerrenda egin behar da, egunaren, helmugaren eta garraiobidearen arabera ordenatuta (bidalketa bakoitzaren eskaera-ordua eta eskaera egin duen saila ere adierazi behar dira).

### 3. Diru-laguntzak emateko irizpideak

Esleipen-irizpideetan, elementu baloragarri bakoitzari ezarriko zaion haztapena zehaztu behar da. Ibilgailuei dagokienez, alderdi hauek balioetsi daitezke, besteak beste:

#### 7. Koadroa

##### **Ibilgailuen eta zerbitzu-motaren alderdiak** (gehienez, % 20).

- Furgonetak:
  - CO<sub>2</sub>-emisio gutxiago (gehienez, % 4).
  - Errekuntza-gasen emisio gutxiago (gehienez, % 4).
- Motorrak:
  - Bestelako gas poluitzaileen emisio gutxiago (gehienez, % 4).
  - Zarata-emisio gutxiago (gehienez, % 4).
- Bizikletak:
  - Bizikleta-zerbitzuaren eremua zabaltzea (gehienez, % 4).

##### **Zerbitzuaren beste alderdi batzuk** (gehienez, % 5).

- Enpresak ekogidatzearen arloko prestakuntza-politika izatea [3]
- Bidalketa- eta banaketa-sistema paper birziklatu bidezkoa eta/edo sistema elektronikoa bidezkoa izatea [2]

## 4. Eskaintza teknikoaren edukia: eskaintza-aurkezpena

Eskaintzen eta aurkeztutako agirien ebaluazioa errazteko, agiriak aurkezteko modu jakin bat eskatu behar da baldintza-agirian. Informazio hori lehiaketa-deialdian zehaztu behar da, eskaintzaileek garaiz izan dezaten.

### 8. Koadroa

Eskaintzaileak agiri hauek aurkeztu behar ditu, honela:

1. **Ingurumen-eskakizunen egiaztapen-zerrenda<sup>1</sup>** behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta. Horrekin batera, nahitaezko irizpideak eta irizpide baloragarriak (eskaintzaileak hartutako konpromisoak) **bermatzen dituen egiaztagiri** guztiak aurkeztu behar dira.
2. **Egiaztapen-zerrendaren eranskina** behar bezala beteta, sinatuta eta zigilatuta, ibilgailuei (furgonetak eta motorrak) buruzko informazioarekin. Ibilgailu horiek kontratu honetan zehaztutako barruko eta/edo kanpoko bidalketetan erabiliko dira, herrian, probintzian eta EAEn [kontratuaren xedearen arabera].

<sup>1</sup> Kapitulu honen "Hornitzaileentzako egiaztapen-zerrenda" atalaren lehenengo txostena ikusi (<http://www.ihobe.eus>, Jarduera-eremuak>Erosketa Publiko Berdea.)